

TAXI LAGUN ZERBITZUA

Udalerri barruan joan-etorriak egiteko aukera ematen die erroldatuta dauden 76 urtetik gorako pertsoneri edo mendekotasuna edo desgaitasuna dutenei.

NORK ERABILI DEZAKE

- Durangon erroldatuta dauden 76 urte edo gehiagoko pertsonak.
- Durangon erroldatuta dauden eta Bizkaiko Foru Aldundiak desgaitasun edo mendekotasun gradua aitortua dutenak.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- skabide-orria behar bezala beteta.
- Eskabide-orria sinatzen duenaren NANaren fotokopia. Eskatzaileek ordezkari baten bidez jarduten badute, haren NANaren kopia ere.
- Bizkaiko Foru Aldundiko ebazpena/txartela non mendekotasun edo desgaitasunaren egoera agertzen den.
- Familia-liburuaren fotokopia, 18 urtetik beherakoen tutoreei dagokienean

ZER BIDAIA EGIN DAITEZKE

- Durangoko udalarekin hitzarmena sinatu duten taxilariak egindako Udalerri barruan diren lekualdaketak.
- Honako egun eta ordu hauetan egindako bidaiak:
 - ⇒ Urteko hilabete guztietan, abuztuan izan ezik.
 - ⇒ Astelehenetik ostiralera: 07:30etik 20:00etara. 15:00etatik 20:00etara bitarteko ordutegirako eskatutako bidaiak egiteko, esleipendunak prest egon beharko du,

ZENBAT BIDAIA EGIN DAITEZKE

Pertsona bakoitzak gehienez **22 bonu eros ditzake 2 hilean behin** (urte naturala).

Larrinagatxu, Momotxo eta Eguzkitza inguruetan bizi diren bizilagunek gehienez **28 bonu erosi ahal izango dituzte 2 hilean behin**. (urte naturala.). Bonu bakoitza bidaia bati dagokio.

ZENBAT BALIO DU BIDAIA BAKOITZAK

Bidaia bakoitzak 11 euroko kostua du edo 16 eurokoa (taxi egokitua). Erabiltzaileak 2 euro ordainduko duen du lekualdaketagatik eta Udalak bere gain hartuko du diferentzia.

NON ETA NOLA ESKATZEN DA ZERBITZUA

Eskaera Durangoko Adinekoen Udal Zentroan egiten da (P. P. Astarloa, 1-2ª), astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Telefonoa: **94 465 74 51** - Emaila: adintek@durango.eus.

Eskaera kudeatu ostean, Taxi Lagun identifikazio txartela emango zaio erabiltzaileari. Txartel horren bidez, ahal izango dira bonuak erosi. Adinez nagusi diren pertsonak baino ezingo dituzte eskuratu.

ZERBITZUAREN ERABILERA

Bidaia bat egiteko adierazten den telefonora deitu beharko da, **747.416.778**.

Zerbitzua txartelean adierazten den telefonoaren bidez bakarrik eskatu ahal izango da. Taxi-Lagun zerbitzua gutxienez bidaia egin baino bi ordu lehenago eskatuko da. Bidaia 9:30ak baino lehen egingo bada, bezperan eskatu beharko da, 20:00ak baino lehen. Aldez aurretik eskatu gabe ere erabili ahal izango da, baina, kasu horretan, esleipendunak prestasuna izan beharko du, eta ez da inola ere zerbitzua bermatuko.